

ximple!





ximple!

“A los de Aoiz, por otro nombre agoiskos, los motejan de simples, añadiendo que hasta las campanas del reloj les hacen la burla, porque, al sonar las horas, la pequeña les canta: Sim-plés..., sim-plés..., sim-plés... Y la grande remacha, cachazuda e inapelable: Son..., son..., son... También usufructúan el mote de pelaires, porque antaño era éste un oficio muy común en el pueblo”.

José María Iribarren



Agoizko Udala | Ayuntamiento de Aoiz

Seigarren zenbakia | Sexto número
diciembre 2013ko abendua

DL | NA370-2013

ZERBITZUAK | SERVICIOS

Udaletxea | Ayuntamiento

948 33 60 05

Euskara Zerbitzua | Servicio de Euskera

948 33 65 65

Kultur Etxea | Casa de Cultura

948 33 66 90

Cederna Garalur

948 33 63 37

Oinarrizko Gizarte Zerbitzua | Servicio Social de Base

948 33 40 95

Liburutegia | Biblioteca

948 33 64 53

San Migel Ikastetxea eta Institutua |

Colegio e Instituto San Miguel

948 33 63 09

Bisitaldi gidatua Elizara | Visitas guiadas a Iglesia

637 44 81 07

Dya

948 33 60 65

Suhiltzaile Boluntarioak | Bomberos Voluntarios

948 33 65 00

Udal Pilotalekua | Frontón Municipal

948 33 61 64

Kirol Gunea | Complejo Deportivo

948 33 67 06

Oharra: Aldizkariaren erredakzio kontseilua Udaleko alor eta batzordeen zinegotziek osatzen dute, udal teknikari eta garapen agentearen laguntzarekin. Horiek aukeratu eta erredaktatuko dituzte zenbaki bakoitzean argitaratzen diren testuak.

AURKIBIDEA

interes orokorrekoak	03-07
garapena eta ingurunea	08
ondare, kultura eta ospakizunak	08-10
euskara	11
berdintasuna eta kirolak	12



Agoizko Udalak herriko ondare grafikoa bildu nahi du: agiriak eta argazkiak. Materiala eskura jarri nahi baduzu, bidali mezu bat helbide hauetako batera: info@aoiz.es edo cultura@aoiz.es. Bestela, Kultur Etxeko **948 33 66 90** telefonora dei dezakezu.



KALEETAN ZEHAR ENTZUNDAKO AZKEN ZURRUMURRUEI BURUZ

Udalean lan zehatzak egiteko enpresa edo pertsonak kontratatzea alderdi zailenetariko bat da. Ebaluatzea, puntuatzea eta bizilagunak kontratatzea alderdi okerrena da gobernu taldean dagoen pertsona ororentzat. Halaber, udal langilea izanik prozesuan, kalifikatzeko epaimahaiari, parte hartu beharrez gero.

Oso zaila da puntuatzea eta izendatzea agoizkoen artean, bizilagunen artean, lagun, familia eta ezagunen artean, izan ere, pertsona batzuk kontratatuko dira eta beste batzuk, berriz, hurbil geratuko dira.

Udalera ailegatu ginenez geroztik, deialdi asko egin ditugu: lorezaintza, herri eraikinetako garbiketa, turismo bulegoa, kultur etxea, gizarte zerbitzuak, zabor bilketa, 0-3 zentroa eta, gutxi barru, ikastetxeko atezaintzarena. Ahalegin handia egin dugu lehen enpresa pribatuen esku zeuden lanpostuak orain publikoak egiteko. Gainera, aukeraketa enpresa pribatu-

aurkeztutako pertsonen galderak edo test-ak balioztatzen dituzte. Gutunazalaz guztion aurrean eta momentu berean irekitzen dira. Puntuaketarako taulak daude, aurretik adosten direnak, eta guztiei modu berean aplikatzen zaizkie epaimahaiaren aurrean (ariketa praktikoak edo elkarrizketak). Beraz, erabakiak eta puntuaketa aho batez erabakitzen dira epaimahaiaren artean. Inoiz ez partaide zehatzen iritziaren arabera (enpresen kontratazioaren kasua, adibidez).

Deialdi publikoak, ezin dira herriko bizikideei mugatu, izan ere, administrazio publikoak ezin du bereizketa hori egin. Hala ere, Udaletik deialdiak herritarrei hurbiltzen saiatzen gara, hala nola, gure lan bulegoaren bitartez, email-en bidez, gure web orrian edo herriko oholean argitaratuz. Modu horretan, herriko jendeak lehen eskuko informazioa lor dezake, inork baino lehen.



tuen esku zegoen zuzenean, ez zen irekia, eta askatasun osoz erabaki zezaketen nor kontratatu eta nor ez.

Hainbat kontratazio prozesuen ondoren, zurrumuruak eta kritikak entzun dira, askotan, testuingurutik kanpo. Pertsona bat kontratatzean, familiarekin, lagunekin edo ideologikoki lotura duen edo ez aztertzen da zuzenean. Maiz, prozesua nolakoa izan den jakin gabe, ezta galdetu gabe ere.

“Politikari guztiak berdinak dira, maneiatzen dute, nahierara kontratatzen dute, ...” moduko esaldiak entzun dira, eta egun, lau haizeetara zabalduta dira. Informazioa eskatu baino lehen edo zalantzak argitu baino lehen adierazten dira, bide zuzen bakarra eta eraginkorra da.

2.600 biztanleko herri batean zaila da jendearen artean inolako loturarik ez egotea, baina ezin dugu esan batzuen onurarentzako eta besteen kalterako izango dela. Kalifikatzeko epaimahaiari, politikariak daude, barne eta kanpo teknikariak, baita udal langileak ere, eta gutun itxien sistemaren bitartez

Deialdi ezberdinetan lana aurkitu dutenen artean agoizkoak daude eta baita beste herritako bizilagunak ere; batzuek, ideologikoki, gure pentsamoldearekin bat egiten dute, beste batzuek berriz, ez. Beste askoren pentsaera ez dugu eza-gutzen (azken finean, hori ez zaigu axola behar); familiakoak daude, lagunak daude, eta inolako loturarik ez dugun horiek ere aurkitzen dira.

Udalean 60 pertsona baino gehiagok egiten dute lan, udaletxean parte hartzen duen enpresa publiko guztiak eta Mankomunitateak kontuan hartuz. Azkeneko legegaldian, zuzeneko kudeaketaren alde egiten saiatu gara, eta lortu dugun leketan, alde batera utzi ditugu enpresa pribatuak. Modu horretan, zerbitzu askoren kostua 1000ka eurotan murriztea lortu dugu baita zuzeneko lanpostuak ere. Halaber, beste pertsonak udaletxean lanik ez egitea suposatzen du, enpresa pribatuetako hainbat langile, hain zuzen. Baina horrek ez du esan nahi langile horiek bota ditugula, are gehiago, kontratua

bukatu arte itxoin dugu beti, eta horien bukaera aurreratze-kotan, bi alderdien adostasunean egin da (haur ikastetxearen kasuan gertatu zen bezala).

Kontratutako pertsonak edo enpresak ez direnean Agoizkoak izan, ez da Udalak horrela erabaki duelako. Udalak ez ditu kanpotarrak nahiago Agoizkoak baino. Hori pentsatzea bidegabekeri hutsa da, edo besterik gabe, gure pentsaera eta izaera ez ezagutzea. Administrazio publikoko arauak eta puntuatzeko modua, aurkezten den orororentzat berdina dira, eta beraz, horregatik gertatu da. Prozesu osoan zehar puntuaketa gehien lortu dutenak irabazi dute.

Batzuetan herriko pertsonak lortu dute lanpostua, baina gero, arrazoiz ezberdinak direla eta, ez dute hori bera hartu, eta beraz, puntuaketa hobereana zuen hurrengo langileari eskaini zaio lanpostua, eta ez zen herriko bizilaguna. Era berean, kontratatutako enpresak herriko pertsonekin egin ditu elkarrizketak, eta gero, azken horiek bertan behera utzi dute lan eskaintza (beste lan aukera izateagatik edo beste ekintza batzuk egin nahi izateagatik), eta azkenik Agoizkoak ez diren langileei eskaini behar izan zaie lana. Bestetik, deialdi batzuetara 3, 4 edo 5 pertsona besterik ez dira aurkeztu, nahiz eta bando, email edo gutun bidez abisatu izana. Noizbehinka, noski, akatsak izan dira eta zuzendu dira (bidezkoa eta egokia izan denean), izan ere, denok gizakiak gara eta akatsak egiten ditugu.

Kudeatzea zaila da, batez ere baliabideak ez ditugun momentu honetan eta bizilagunok lana hainbeste behar dugunean. Egia da denok lana merezi dugula, denok horretarako eskubidea baitugu. Lana lortzeko zorian geratzen direnak, lana lortzen dutenak bezala lanpostua merezi dute. Baina ez da bidezkoa pentsatzea langileak Udalaren erabakia dela-eta lortu dutela lana. Kasu guztietan, haien eginahalei esker lortu dute.

0-3 ikastetxearekin eta igerilekuen tabernarekin horrela gertatu da, eta horiek izan dira egin ditugun azken kontratazioak. Haur eskolaren kasuan, 5 enpresak izena eman zuten lana lortzeko. Horien artean agoizkoak zeuden, denon artean ezagunak. Beste batzuetan, ikastetxe horretan aurretik lan egindako hainbat pertsona zeuden. Baldintza pleguko atal ezberdinetan puntuaketa gehien zutenek zentroaren kudeaketa lortu zuten. Nortzuk ziren eta nolako izena zuten alde batera utzita. Norgehiagoka aritu ziren lehenengo aldia izan zen, izan ere, enpresa moduan edo banakako moduan aurkeztutako proiektuak oso adituak ziren.

Igerilekuen kasuan, deialdian aurkeztutako pertsona bakarrarentzat izan zen kudeaketa. Udalera proiektu bakarra ailegatu zen; hala ere, deia hainbat lekuetan argitaratu zen, hala nola, 30 taberna, jatetxe eta dendei proposatu zitzaie, herriko web gunean argitaratu zen, gure kontaktu guztiei mailak bidali genizkien (300 baino gehiago), eta herriko oholean eta Kanpondoko oholean kokatu zen.

Lerro hauen bitartez, babestu nahi dut Udalak egindako kontratuen objetibotasuna eta menpekotasunik eza, besterik ez. Interesek ez gaituzte mugiarazten, ez diogu inori mesede egin nahi, izan ere, jakin badakigu, hori dela eta administrazio publikoarekiko konfiantza eta sinesgarritasuna galdu egiten dela. Aitortzen dut zaila dela, behar duten familia askoren etorkizuna kolokan dagoela. Baina, lan hori lortu duenek, Udalari esker lortu duela pentsatze hutsa iraina da. Langile horien gaitasun eta lorpenei iraina da, baita herriarengatik lan egiten dugunontzat ere iraina. Gure ibilbidea ezagutzen dela uste dut, eta aski ezagunak gara gure zuzentasuna zalan-tzan jartzeko. Beste gauza bat da, ados egotea edo ez egotea Udalak aurrera eramaten duen politikarekin.

Unai Lako, Agoizko alkatea

0-3 IKASTETXEKO KUDEAKETA BERRITU DA

Uztailaren bukaera aldera haur eskolako kudeaketa beritu zen. Hasiera batean, 0-3 ikastetxea momentura arte kudeatzen zuten enpresak eta Udalak adostu zuten kontratuaren amaiera aurreratzea eta udan amaitzea. Horrela, kudeaketa berria ikasturtearekin batera hasiko zen. Uda arte abian zegoen kontratua abenduaren 31 arte iraungo zuen, eta enpresa edo langileak aldatzekotan, data hori ez zatekeen onuragarria izango bertako ikasleentzat.

Deialdira 5 proiektu aurkeztu ziren, eta denak, haur ikastetxeetan lanean eta kudeaketan esperientzia zuten enpresa eta

pertsonak ziren. Kalifikatzeko epaimahaian parte hartu zuten udaleko langileak, politikariak, 0-3 zentzoko Guraso Elkarteak, eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko ki-deak. Pinpilinpauxa enpresak lortu zuten puntuaketa gehiena, eta beraz, haur eskolako kudeaketa berari eman zioten. Enpresa bi langileez osatuta dago, eta Agoizko 0-3 zentroan aurretik lan egin dute. Kontratua lau urte iraungo du. Enpresak, INEM bitartez, lan eskaintza publikoa egin zuten, zentrorako langileak kontratatuzko.



2012-2013 IKASTURTEKO FINANTZIAKETA

Gaurko egunarekin (azaroaren 28a), Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak ez dio Agoizko Udalari dirulaguntzaren zentimo bat ere eman. 0-3 zentrorako dirulaguntzak 2012-2013 ikasturtearekin zerikusia zuen, eta duela 5 hilabete bukatu genuen ikasturtea, hain zuzen. Uztailan, ikasturtea bukatu zenean, dirulaguntzen deialdia atera zen. Gure ikastetxearentzat 56.000€ onartu zituzten. Aurreko ikasturtearekiko laguntzen %40 murriztu dute. Udalak pasa

den ikasturteko gastuak aurreratu ditu baita 2013-2014 ikasturte honetako lehen hiruhilekoari dagokiona ere. Hala ere, oraindik ez du Gobernutik dirulaguntzarik jaso. Parlamentuko taldeek Nafarroako administrazioaren jarrera salatu dute hainbat proposamen eta mozioen bitartez, baina, orain arte ez zaio irtenbiderik eman arazoari eta Udalari oso ondorio ekonomiko txarrak eragin dizkio.

ATEZAIN LANPOSTUA LORTZEKO PROZESUA LUZATU DA



Aurreko ekainaren 6an ospatutako osoko bilkuran, Udalak onartu zituen atezainaren kontratazioaren oinarriak. Lanpostua modu finkoan lan egiteko zen Agoizko ikastetxean. 2012. urtean, zerbitzu anitzetako langile bat jubilatu zen, eta kalean pilatzen zen lana zela eta, eskolako langileak kaleko lanak ere egitea beharrezkoa zen. Beraz, jubilatutako pertsonaren lanpostua bete zen eta atezainaren lanpostua sortu zen bere orde.

Behin Nafarroako Aldizkari Ofizialean deialdia egin eta Udallean hainbat eskakizunak aurkeztu, Nafarroako Gobernuko Herri Administrazioaren Departamentuak deialdia bertan behera uztea erabaki zuen. Arrazoia 2013 urterako epe finko-

rako kontratazioen debekua zen, Madrilgo Gobernuaren esanetan. Udalak, beriz, argudiatu zuen ez zela langile berri baten kontratazioaren kontua, baizik eta, bata bestearekin ordezkatuko zuela. Baina Nafarroako Gobernuak ezetz esan zuen.

Egoera horri aurre egiteko, lanpostu berdina eskaintzea erabaki zen. Lanpostu finkoa izan beharrean epe baterako lanpostua izango zen. Horrela egin behar izan da, nahiz eta Udalaren lehenengo aukera ez izan. Aurreko urriaren 3ko osoko bilkuran, orri berriak onartu ziren, eta NAO-n argitaratu dira iada. Aurki aukeratze prozesua egingo da.

UDAL LANGILEAK FUNTZIONARIO BIHURTZEKO PROZESUA HASIA DA

Nafarroako Parlamentuak maiatzaren 29an lege bat onartu zuen zeinetan funtzionario bihurtzeko prozesu berria aurrera eraman ahal izango da. Bertan, herri erakundeek langile finkoak funtzionario bihurtzeko daitezke. Agoizko Udalak aho batez onartu zuen prozesuaren hasiera, 2004. urtean ere horixe bera egin zen. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta gero, Udaleko langileek bi hilabeteetako tartea izan zuten beharrezko dokumentazio guztia aurkezteko. Denbora tarte hori pasata, udaletxeak, behin betiko onartu zuen prozesu hura, zeinetan lau langilek izan zuten aukera.



ZANGOTZAKO MERINALDEAK KALITATEZKO ETA HURBILEKO OSASUN LAGUNTZAREN ALDE EGIN DU

Nafarroako herri eremuko osasun laguntza murriztu nahi zuten legearen aurrean, Parlamentuak aurkakotasuna azaldu zuen. Pirinio aldeko Osasun arloko langileek, alkateek eta hautatuek zirriborro bat egin zuten zeinetan osasun laguntzaren oinarriak arautzen ziren. Horretarako, Herri Ekimen Legegilea sustatu zuten eta aurki Parlamentuan aurkeztuko dute.

Testu horretan gutxieneko alderdiak zehazten dira, hala nola, zentroko zaintzak egiteko langileak bertan egotea eskatzen da; larrialdi bateko arreta 20 minututan gehienez jota bete behar da; ordezkapenak, gutxienez, %70ean egin behar dira,

bezeroak arreta gal ez dezaten; larrialdietarako materiala eta oinarriko baliabideak zehazten dira; behar duten pertsonen etengabeko arreta bermatzen zaie eta barne mailako kontsultak eta zita emateko ibilbideak bultzatzen dituzte. Ekimena Parlamentura iritsi dadin beharrezkoa da Zangotzako Merindadeko Udalen herena, gutxienez, osoko bilkurretan onartzea proposamena. Dagoeneko, merindaldeko 56 udalerri (64 dira, guztira) onartu dute, horien artean Agoitz. Espero dugu datorren neguan proposamena Parlamentura ailegatzea, horixe eztabaidatu ahal izateko.



HERRI MAPAREN EZTABAIDAREN INGURUAN ERABAKI BERRIAK

Nafarroako mapa berrantolaketaren inguruko eztabaida aurrera doa. Ekainean, ehun herri baino gehiagoren eskaeraren ondorioz (horien artean, Agoitz zegoen), Nafarroako Herri Federazioak ez-ohiko biltzerra antolatu zuen, gaiaren inguruan hitz egiteko. Bertan, biltzerra bultzatu zuten horiek, Federazioari eskatu zioten bere jarreraren inguruan berri ere hausnarketa egitea, izan ere, UPN Gobernuak proposatutako aldaketaren alde ageri ziren. Aldaketa ez zen aurretik eztabaidatu ezta bozkatu ere, eta Nafarroako udalei eta udalbatzei ez zitzaion ezer ere galdetu.

Federazioak egin zuen kontraproposamena eztabaidagaia ekiditea zen. 10 botoen aldearekin, Federazioak lortu zuen herri maparen inguruko eztabaida bertan behera uztea, eta beraz, bere aldeko jarrerarekin jarraitzen du. Bestalde, biltzar horretan bertan, eztabaidatzeko taldeen sorreraren berri eman zuten. Madrilgo Gobernuak planteatu zuen herri maparen aldaketan taldeak erabiliko zirela hartu beharreko jarrera adosteko. Azken finean, Nafarroan egin denaren kontrakoa egingo zen.

HAINBAT UDALEK SALATU DUTE NAFARROAKO GOBERNUAK EZ DUELA ORDAINTZEN ESKOLA KONTZENTRAZIOAK (TALDEKATZEAK) SORTZEN DITUEN GASTU GUZTIAK

Agoizko San Migel Ikastetxe Publikoa, eskualde-burua baita, inguruko herrietako ikasle guztiak hartu behar ditu. Egoera horrek, egun bizi garen egoera ekonomikoa kontuan hartuta, kostu handia sortzen du, eta zaila da aurrera eramatea. Modu berean, Agoitzek bere gain hartzen du ikasleriaren gastu guztia: bai atezaintzari dagokiona, bai garbiketari, argiari, berogailuari eta konponketei dagokiena. Baina Udal honek, legez, ez du dena bere gain hartu behar. Horren aurrean, Nafarroako Gobernuak hainbat dirulaguntza ahalbidetu zituen, horrelako kostuari aurre egin ahal izateko;

baina, dena den, urte batetik bestera murriztuz doa, eta gastua, berriz, berdina izaten jarraitzen du edo handituz doa. Nafarroako Herri Federazioko Eskola Kontzentrazio Batzordearen bilera batean, eskola kontzentrazioen buru diren hainbat udal, elkarrekin egindako eskakizuna aurkeztea erabaki zuten, Nafarroako Hezkuntza Departamentuan. Bertan, azkeneko lau urteetan sortutako gastuen kantitatea eskatu zitzaion Nafarroako Gobernuari, agoizkoak ez diren ikasleei dagozkienak.

AZKENEKO OSOKO BILKURETAN ONRATUTAKO MOZIOAK



Uztailaren 4a: Bilduren aldeko botoekin eta AIaren kontrakoekin, Udalak CIP Donapea hezkuntza elkarteak aurkeztutako agiri bat egin zuen. Bertan, orain arte egon den leku berean mantentzea eskatu zen, izan ere, ez dago beste leku batera mugitzeko beharra, leku nahikoa baitago. Gainera bertako hezkuntza erakundearen gehiengoak alde batera utzi du Nafarroako Gobernuak dituen helburuak.

Urriaren 3a: AIAko zinegotziek kontza bozkatu zutelara, udalak premiazko mozio baten bitartez salatu zuen Herrira eragileak jasandako makro-operazioa. Herrira euskal presoek giza eskubideen alde lan egiten duen eragilea da. Mozioan aipatu zen operazio hori irtenbideen prozesuan egindako eraso dela, eta eskatu zen Herrira kriminalizatu nahian abiatutako ekimen oro bertan behera uztea, baita preso guztien lekualdatzea ere, euskal espetxetara hain zuzen.

Azaroaren 7a: Aho batez onartu zen Genero Indarkeriaren Aurkako Eguna (azaroaren 25a) lotutako mozio bat. Gainera, udaletxearen aurrean kontzentrazio bat burutu zen, eta IPESen laguntzarekin zinema ekitaldia antolatu zen. Bertan jende askok hartu zuen parte.

Azaroaren 7a: Bilduren aldeko botoekin, mozio bat onartu egin zen Yolanda Barcinari bota zioten 4 tartalariei elkartasuna adierazteko. Haien artean 5 eta 9 urte arteko espetxea eskatu zuten. Azkenean, 2 urteko espetxera zigortu zituzten, nahiz eta ez diren sartu behar.



AZKENEAN TRINKETE KALEAN ZEHAR IBILI GAITEZKE

Sei urte baino gehiago itxita egon eta gero, Trinkete kalea berri ireki da. Diaz Etxeko etxaurrea kanpotik finkatzen zizuten aldamiok, oinetxeko barrualdera aldatu ziren. Orain eraikina barrualdetik atxikirik gelditu da, eta horri esker, kalean zehar ibili gaitezke eta etxaurrearen edertasunaz goza dezakegu lasai asko.

Udalak subsidiarioki aritu da aldaketa burutzeko, hau da,

higiezinen jabeek zordunduko die aldamioren aldaketaren kostea eta aldamiok alokatzeagatik hilabeteko errenta, 70.000 euro hain zuzen.

Aurreko martxoan, Udala Diaz Etxeko jabeekin elkartu zen arazoari konponbidea emateko asmoz. Hala ere, inork ez zuen erantzun egindako proposamenari, eta beraz, subsidiarioki aritzeko bidea hartu zen.



ETXEKO JABEETAKO BAT SALATU DUTE ETA USTELKERIA EGOTZI DIOTE

Juan Carlos Riezuri, Diaz Etxeko jabeetako bat eta Gizarte Segurantzako Zerga Bilketako Diruzaintzaren Zuzendari-zako nagusiari, berankorrei aholkularitza eman izana egotzi diote. Aldi berean, enkantera ateratako konfiskatutako hainbat ogasuni etekina atera izana leporatu diote. Zenbait komunikabidetan agertutako informazioen arabera, zor

handiak ditu Gizarte Segurantzarekin zor handia zeukala ostalaritzako enpresa bati aholkularitza lana egiteagatik. Hain zuzen ere, Diaz Etxeko jabeetaren %50 Juan Carlos Riezurentzat izan zen, ostalari batek berarekin zeukan zorraren ordainetan. Orain jauregi honetan gertatutako gauza asko uler ditzakegu.

CEDERNA GARALURREK ETA AGOIZKO UDALAK BULTZATUTAKO FORMAKUNTZA IKASTAROAK

Azkeneko asteetan Cederna Garalurrek bultzatutako ikastaroak ospatu dira "Enpresa txikien formakuntza" Proiektuaren barnean. Finantzaketa Herri Garapenerako Europako Funtsak eta Nafarroako Gobernuko Herri Garapenerako Programaren esku izan da 2007-2013. Ekintzak aurrera eramateko 27500€ erabili dira eta horri esker ikastaroak dohainik izan dira gerturatuak ororentzat.

Agoitzen, zehazki, "Auto-enpleatu, zeure buruarentzat lan egin" ikastaroa eman zen, zeinetan 13 pertsonak hartu zuten parte. "Alfabetizazio digitalaren bitartez lan bilaketa aktiboa" beste bi ikastaro egon ziren, bat goizez, bestea arratsaldez. Nahiz eta hasiera batean ikastaro bakarra eskaini, hainbeste pertsona izena eman zuten bikoiztu egin zen.

Azkenik "Iskanbila garaietan nola saldu" ikastaroa eraman zen aurrera. Saltzaileentzako, zerbitzu edo turismo enpresentzako zuzendua zegoen. Miguel Iribertegi ospe handiko profesionalak eman zuten ikastaroa. Iribertegik "saltzaileen entrenatzaile"-tzat hartzen du bere burua. Bertan 14 pertsonak hartu zuten parte.

Abenduaren 12an, "Nafarroako mendiguneko enpresa eta sustatzaileentzako finantzaketa aukerak" hitzaldiak ospatuko dira, eta horren helburua enpresa proiektuen finantzaketa modu berriak ezagutaraztea da. Ikastaroak aurrera atera dira Udalen laguntzari esker, izan ere, azken horiek, doan, leku publikoak ahalbidetu dituzte.

AGOIZKO NAFARROA BIZIRIK UDALARI EGINDAKO OPARIA

Herriko Nafarroako Bizirik 1512-2012 taldeak iaz ekimen ezberdinetan lan egin zuen, horien bitartez Gaztelako Erreinuak Nafarroa konkistatu zuenetik 500 urte azaltzea bilatzen zen. Talde horrek Agoizko Udalarari oso margolan berezia oparitu dio. Urtemuga dela eta, Nestor Basterretxea eskultoreak egindako margolana da, eta Txema Esteban Agoizko artistak egindako arrano beltza garezurrez inguratutako ager-tzen da. Aurki, margolanaz denok gozatu ahal izateko lekuren batean jarriko dugu. Eskerrik asko, Agoizko Nafarroa Bizirik 1512-2012 opariagatik!



ondare, kultura eta ospakizunak

DANTZA LOKALA ESTREINATU DA



DYaren azpialdean dagoen lokala goitik behera eraldatu dute eta hemendik aurrera Agoitzen dantzarekin zerikusirik daukan edozein ekintzarako erabiliko da. Lana 75.000€-ko aurrekontuarekin egin da, eta aurrera eraman da Cederna Garalurrek ahalbidetutako laguntzari esker, Leader laguntzari esker, hain zuzen ere.

Lokala hiru zatitan banatu dute: lehenengoa Agoizko Dantzari Taldean parte hartzen duten talde desberdinak erabiltzeko da; beste atal batean Dánzalo eskola dago eta azkenik,

guztiak erabili ahal izango dituzten aldaketa gelak eta komunak daude.

Dantza taldeari eman zaion lokala Udalak doan eman dio, Danzalo eskola, berriz, 5 urterako kontratua dauka (lehiaketa publikoa egin ondoren), eta bere hilabeteko ekarpenari esker berreskuratuko da Cederna Garaluren dirulaguntzak betetzen ez zuten ehunekoa, Agoizko Udalak aurreratzen zuten kopurua. 150 bizilagun baino gehiago instalazio berriez gozatu ahal izango dute.

DAGOENKO EZAGUTZEN DIRA ARGAZKI LEHIAKETAREN IRABAZLEAK

Aurtengo argazki lehiaketaren berritasun nagusia izan da herriko saria ezartzea. Sarituaren aukeraketan Agoizko herritarrek parte hartu dute. Epaimahaiak aurretik hautatutako hiru argazkien artean botoa eman zuten. Argazki irabazlea, "Isladak" izeneko eta Logroñoko Angel Benito Zapatak



egindakoa, 500€ irabazi zituen. Herriko saria (300€), behin 60 pertsonak baino gehiago botoa eman, Juan Leatxek irabazi du, "Kale Berria" argazkiarekin. Argazkirik nabarmenenak Kultur Etxeko erakustaretoan jarriko dira, abenduaren 6tik 21a arte. Horretaz gain, 2014. urteko egutegian agertuko dira. Udalak erakustokira gerturatzen den orori egutegia oparituko dio.

AGOIZKO ETA LONGIDAKO FUSILATUEN OROIMENEAN

Beste urte batez, frontoiko parkean dagoen monolitoan omenaldi bat egin zen. Agoizko Udalak gerra zibilean eta errepresio frankistan fusilatu zituzten 24 pertsonen eskaintako ospakizuna izan zen. Gaiteroen musika, dantzarien aurrakua eta txistulariak diktadura jasan zuten pertsonen lana eta eredu onartu zituzten. Ospakizunak fusilatu guztien familiak ere omendu nahi zituen, izan ere, duintasun handiz, ausardi eta erabakitazunez maite zituztenen memoria be-

rreskuratzea lortu zuten. Omenaldiarekin bat eginenez, Memoriaren Autobusa eragileak, Kultur Etxean, Jose Ramon Urtasun artista nafarraren margolanak jarri zituen ikusgai, gerra zibila eta horrek Nafarroan izan zituen ondorioei buruzkoa.



2013KO JAIAK: SOILAK, HERRIKOIAK ETA PARTE HARTZEKOAK

Aurten, berriz ere, eguraldi ona izan dugu jaietan zehar. Bizilagunak izugarriko parte hartzea izan dute jaietako ekintza ezberdinetan, baita aurretik ospatutako bileretan ere, zeinetan programaketari buruzko erabakiak hartzen ziren edo txupinazoa nori bota behar zuten adostu zen. Eragileen eta norbanako askori, guztion artean, jai herrikoiak aurrera eraman ahal izatea lortu dugu.

Aurtengo aurrekontua, berriz ere, murriztu egin zen. Iaz 126.000 € izan genituen, aurten berriz, 90.000 €. Programa egungo egoerara egokitzuz goaz, hala



ere, programa haizeberritzeko ekintzak ez ditugu alde batera utzi. Aurten lehenengo aldiz egindako ekintzen artean hauek ditugu: Saharai taldearen haimak, 0-3 urte bitarteko motorren lehiaketa, birziklatzearen aldeko jarrera bultzatzen zuten batukada edo Agoitz kantuz. Bilaketa Txarangak, bere 15. urteurrena zela eta, eta Sarean Gizarte Eragileak, gehien behar dutenei laguntzeagatik, jaiari hasiera eman zioten, herriak horrela erabakita. Berriz ere, udal langileen lana eskertu behar dugu, baita eragile, talde eta bizilagun guztien parte hartzea ere. Eskerrik asko!!

AZKEN HILABETEOTAKO BIRPASO KULTURALA

Udako hilabeteetan zehar kultura, batez ere kalean garatu da. Kalean aisiak eta eguraldi onak eszenatokia partekatzen dute. The Icer Company taldearen musika emanaldiaz gozatu dugu, Iker Ciaren taldea, hain zuzen ere. Angiluerrekako Trikitixa Taldeak Nafarroa Behoko Plazan kontzertua eskaini zigun. Gaitariak Agoizko kaleetan zehar antzun genituen. San Migel Abesbatzak, Opera Abesbatzarekin batera, eliza betetzea lortu zuen, eskainitako kontzertuarekin ateratako etekina herriko Caritas eragileari eman zion.

Deabru Beltzak eskainitako perkusio eta piroteknia ikuskizunaz gozatu genuen, baita Mikelets taldearen dantzeta eta udako zinemas ere. Pankarta tailerra ere bizilagunen eskura zegoen. Hainbat erakusketak ere egon ziren, hala nola, Monte Alduides Koordinatzailea eta Urrotzeko Iosu Uritzen argazkiak, Ramon Leacheren etnografikoa (arrakasta handia izan zuen), Jose Ramon Urtaşunen margolanak, gerra zibila eta frankismoaren errepresioari buruzkoak, Memoriaren Autobusaren eta Orreaga Fundazioaren esku.

Uda pasata, kultura ibilbidea berriz hartu dugu, proposamen anitz eta interesgarriekin.

Arte eszenikoekin jarraituz:

La vuelta al mundo en 80 pulgadas, Compañía Malaspulgas. Familia osoarentzako antzerkia, euskaraz (urriaren 12an).

Jose Hierro Aretoan, Bilaketak antolatutako Kafe-Kontzertuak.

Nazioarteko Abesbatzen XIX. Zikloan, The Indonesia Choir egon zen (azaroaren 3an), Nafarroako Abesbatzen Elkarteak antolatuta.

Agoizko Txistulari Taldeak antolatutako topaketa (azaroaren 9an)

AGAO-k (Asociacion Gayarre de Amigos de la Opera) Verdiren Opera Kontzertua (azaroaren 10a)



La llave maestra (Nafarroako taldeak), Papezko Delirioak ekarri zuen. Publiko guztientzako antzerkia.

Trokolo Taldearen esku, haurrei zuzendutako antzerkia (azaroaren 20a)

San Migel Abesbatzaren Eguberrietako Kontzertua (abenduaren 21a)

Mariano Garcia Banda eta Abesbatza Txikiaren arteko Eguberrietako Kontzertua (abenduaren 22a)

XXL Espectaculos Taldeak, Caperucita Rock publiko familiarri zuzendua (abenduaren 23a)

Ilusionate!, Iñigoren Magia (abenduaren 29a)

Erakusketak:

Nafarroako Mugarik Gabeko Arkitektoak. 20 urte sentsibilitateak eraikitzen. Urriaren 22tik azaroaren 2ra.

Bide Zabalak: Baliabide berriak erabiltzeko orduan agertzen diren planteamenduen aniztasuna ikusgai jartzen da UPV-EHU-ko Arte Ederretako Fakultateko bederatzti artistaren lanarekin. Azaroaren 8tik 23ra.

Gure ondarea ezagutzuz:

Pello Guerra-ren liburuaren aurkezpena, La Navarra perdida (azaroaren 9a)

Javier Villarealen esku, arte garaikidea eta teknologia berriei buruzko hitzaldia (azaroaren 15a).

Kultura programaketaz gain, uda eta gero, **Kulturgunearen** bilerak berriz hasi dira, aurreko irailaren 26an.

EMILIO ESTEVEZEK UTZI GAITU

Azkeneko abuztuaren 6an, gaixotasun luze baten ondoren, Emilio Estevezek utzi gintuen. 1990-1991 ikasturtean Agoizko Musika Eskolaren sortzaileenetarikoa izan zen. Horretaz gain, saxofoi irakaslea izan zen eta Mariano Garcia Musika Bandaren zuzendaria izan zen, bere sorreratik, 1997an, 2010. urtean erretiratu arte. Agoizkoen artean aztarra garrantzitsua utzi du. Urriaren 6an bere omenez meza bat ospatu zen eta hilabete bereko 27an, omenaldi bat egin zen,

zeinetan Emiliorekin batera musika maitatzen ikasi zuten ikasle gehienak parte hartu zuten. Ekintza bietan, Udalak eta Musika Eskolak parte hartu zuten. Idazki honetatik besarkada handia bidali nahi diogu Raqueli, bere emaztea, eta bere alabei, Beatriz eta Cristina. Eskerrik asko maisu!



"HAMARKADA BATEAN" EUSKARAREN EGUNAK HIZPIDE DUEN DOKUMETALA AURKEZTU ZEN EGUNEAN AZKEN OSPAKIZUNEAN



Agoizko Udalak eta Karrika Euskara Taldeak antolatzen dute, lankidetzan, Agoizko Euskararen Eguna eta horretarako egiten den jaialdia. Aurten, ez da ikuskizun berririk aurkeztu, eta, horren ordez, begirada bat eman zaio orain arte egindakoari. Helburu horrekin, pasa diren 30ean eta abenduaren 1etan izandako azken Euskararen Egunean Euskararen Egunean bi eskaintza egin ziren. Lehenengoa egunei buruzko erakusketa izan zen. Bertan ikusgai jarri ziren gaia prestatzeko eta jaialdian erabiltzeko materialak, besteak beste, dokumentuak,

liburuak, atrezoa, arropa eta abar. Horretaz gain ikusgai zeuden egunetan bitzako momenturik garrantzitsuenak eta egunetako partaideak erakusten zituzten argazkiak. Gauzarik nabarmenena, ordea, Edurne Manuk eta Rut Etxarte agoiztarrek eginiko Hamarkada Batean izeneko dokumentala izan zen. Grabazioaren bidez Karrika taldeko kideek laburtu eta baloratu dute orain arte egindako lana, eta horrelako ikuskizunen atzean "egosten" eta ezkututzen denari buruz aritzen dira.

HIZKUNTZA ESKUBIDEEN BEHATOKIAK AGOIZKO BI ESTABLEZIMENDUEN JARDUKETA SARITU DU

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak sustaturiko Hizkuntza Eskubideen Behatokiaren zeregina heritarren hizkuntza-eskubideak zaintzea eta bermatzea da. Euskal Herriko arlo publikoko zein pribatuko entitateak, zerbitzuak eta abar behatzen ditu, baita Agoizkoak ere. Fundazioak Agoizko bi establezimenduen jarduketa goretzi nahi izan du, Bados

Calahorra Botikarena eta Ekix tabernarena hain zuzen ere, bertan "euskaraz egin daitekeelako" Egindako txalotzea portaera horrekin jarraitzeko bultzada izango da, dudarik gabe, bi establezimenduentzat, eta baita Agoizko beste batzuk bide beretik joateko akuilu eta gonbitea ere.



JAENeko SIERRA MÁGINAKO EMAKUMEEKIN ESPERIENTZIEKIN TRUKEA

Irailaren 25ean, 16 pertsonaz osatutako taldea Agoitzen egon zen. Jaeneko Sierra Mágina eremukoak ziren. Nafarroako Erdialdeko Ekintza Lokala Taldearekin batera elkarlanean ari dira proiektu ezberdinetan duela hamarkada bat. Haien bisitak Nafarroan honako helburua zeukan: Adiskidetze Itunen programaren barruan, haien esperientzia partekatzea. Agoizko bileraz gainera, beste batzuk burutu dituzte bai

Erdialdeko Itunen artean, bai Burlata eta Tuteran. Agoitzen, "Lana pratekatzen duten familiak" programaren esperientzia ezagutu zuten, zeinetan familiako kideen arteko lanen banaketa bultzatzen da, kide guztiak etxeko lanetan parte har dezaten. Taldea bildu zen Agoizko Adiskidetze Ituna osatzen duten hainbat politika ordezkariarekin eta teknikariek.



UDALAREN ETA KANPONDOAREN 2013-2014KO IKASTAROAK HASI DIRA

Urria ailegatzean, Kanpondoak eta Udalaren Kultur Sailak antolatutako ikastaroak hasi dira. Zaharberritze ikastaroak, helduentzako margoketa eta ehoziriak aurrera atera dira, eta iazko eskaria hazi da aurten. Haurrentzako margoketa ikastaroa, euskaraz, arrakasta handia izan du, eta aurten lehenengo aldiz eskaini da.

Kirol ikastaroetan izena ematea ere ona izan da, nahiz eta matrikulatu direnen kopurua 233tik 214ra jaitsi den. Hainbat

berrikuntza egon dira, Zumba, irristaketa eta norbereko babesa, adibidez, eta oso harrera ona izan dute. Aurreko urteetatik finkatutako ekintzak ere aurrera jarraitzen dute. Aurten, estreinakoz, Kanpondoako kirol ikastaroak ez dute defizita sortuko, izan ere, 2010. urtean 12.000€-ko defizita sortu zuten. Galera horiek murriztu dira, eta gastuak eta sarrerak ia parekatu dira (1.600€-ko defizita). Aldaketa hori begiraleen eta erabiltzaileen ahaleginei esker lortu da.



ORDAINDU GABEKO SARRERA, EKIMEN SOLIDARIOA

Sarean eta Kanpondoa elkarlanean aritu dira eta Napolesen XVII. Mendean egindako "ordaindu gabeko kafea" ekimenaren antzera egin dute. Proiektua "Ordaindu Gabeko Sarrera" izendatu dute. Uda osoan zehar egon da abian igerilekuetan. Erabiltzaileak kanpoko igerilekurako sarrera bat ordaintzen zuen eta harrera-lekuan uzten zuen. Horrela, goiz baterako edo arratsal-



de baterako sarrera ordaindu ezin zuenak, beste pertsonak ordaindutako sarrera erabili zezakeen. 40 ordaindu gabeko sarrera baino gehiago egon dira, are gehiago, baten bat soberan geratu da, eta datorren udan erabili ahal izango da. Ekimen interesgarria, izan ere, egun laguntzeko ekintzak gero eta gutxiago ikusten ditugu.